

Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana. 2021-2024





1.	Sarrera	3
2.	Araudi-markoa	5
3.	Ordiziako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana	9
3.1.	Planaren xedea, printzipioak eta bermea	9
3.2.	Planaren esku-hartze eremuak eta helburuak	11
3.3.	Planean jasotako neurriak, epeak eta arduradunak	15
4.	Planaren kudeaketa-eredua	30
4.1.	Planaren kudeaketarako egiturak	30
4.2.	Erakundeen arteko koordinazio-egiturak	34
4.3.	Plana garatzeko aurrekontua	34
5.	Planaren komunikazioa	35
6.	Planaren segimendua eta ebaluazioa	39



1. Sarrera

Ordiziako Udalak **ibilbide bat egina** du emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan. Ordiziako Udalaren aurreko bi Planak ere, une hartan EAEn indarrean zegoen Emakume eta Gizonen berdintasunerako Plana kontuan hartuta landu ziren.

- Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana 2009-2012;
- Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana 2012-2019; eta

Horrez gain, udal-barrura begira, ezinbestean aipatu behar da Ordiziako Udalak 2015ean hartutako konpromisoa: **Ordiziako Udalaren jardunean genero-zeharlerrotasunaren estrategia ezartzeko akordioa**, Osoko Bilkuran onartu zena.

Txosten honetan, hain juxtu, **Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana** jaso dugu. Zehazki, atal hauek jaso ditugu:

- Sarrera. Gaur egungo erronka nagusiak
- Araudi-markoa
- Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana
- Planaren kudeaketa-eredua
- Planaren komunikazioa
- Planaren segimendua eta ebaluazioa

Gaur egungo erronka nagusiak

Berdintasunerako II. Planaren indarraldia bukatuta, Berdintasun Sailak **geldialdia egiteko une egokia** dela baloratu du, orain arte egindako lanaren eta egungo egoeraren balantzea egiteko, eta ateratako ikaspen eta ondorioekin Berdintasunerako III. Plana diseinatzeko.

Txostenaren helburu nagusia orain arte Udaletik egin den lana ezagutzea izan den arren, **informazio hori biltzeak etorkizuneko erronken inguruko informazioa** ere eman digu.



1. Sarrera

Hauek dira identifikatu ditugun erronka nagusiak laburbilduta:

Udal barrura begira

1. Berdintasun Sailak dituen baliabideak aztertzea eta indartzea.
2. Genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko lanerako baldintzak lantzea: egiturak indartu, sailen arteko elkarlana sustatu, trebakuntza espezifikoak landu, ea.
3. Udalaren azpikontratazioetan eragitea, emakumeen lan-baldintzak hobetzeko neurriak hartuz.

Udalerrira begira

1. Emakumeen ahalduntzearen eta partaidetza sozio-politikoaren eremuan, Ahalduntze Eskola egituratzea.
2. Udalaren eta mugimendu feministaren artean interlokuzio- edo solaskidetza-gune sendoa sortzea.
3. Herritarren berdintasuneko sentsibilizazioa lantzen jarraitzea, eta, zehazki, herriko gizonaekin ere eraldaketa-prozesuak sustatzea.
4. Hezkidetza-egitasmoek nerabe eta gazteengan duten eragina aztertzea, hobetu beharreko alderdiak identifikatzeko.
5. COVID-19ak areagotu duen zaintzen krisia eta, oro har, krisi sozial eta ekonomikoa aintzat hartuta, zaugarritasun-egoera berezian egon daitezkeen emakumeen bizi-baldintzak hobetzea. Aldi berean, Zaintzalanen antolakuntza sozial berri bat lantzea funtsezkoa da (Bizitza erdigunean).
6. Emakumeenganako indarkeriari dagokionez, esku-hartzea modu integralean gauzatzea.

Egindako lanaren eta egungo egoeraren ebaluazioa honako artxiboan jaso dugu:



Egungo egoeraren
balantze txostena labu



Atal honetan, berdintasunerako politikei lotutako araudi-markoa jaso dugu, mundu-mailan, Europan, espainiar Estatuan eta EAEn azpimarragarrienak diren lege, itun, hitzarmenek... diotena deskribatuz:

Emakumeen aurkako bereizkeria guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa

4/2005 Legeak hasierako adierazpenean jasotzen duen moduan, emakumearen aurkako bereizkeria era guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioak (NBEren Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsi zuen, eta espainiar Estatuak 1948ko otsailean berretsi) emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aldarrikatu zuen. Konbentzio horren 2. artikuluan, ondoko konpromisoa hartu zuten NBEko kideek: *“printzipio hori legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuk erabiliz benetan betearazten dela bermatzea”*.

Amsterdamgo Ituna

Beste alde batetik, 1999ko maiatzaren 1ean Amsterdamgo Ituna indarrean jarri zenetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna Europar Batasunaren funtsezko printzipio bilakatu da. Europar Batasunaren Ituneko 3.2. artikuluaekin bat, Batasuneko eta kide diren estatuetakoko politika eta ekintza guztietan integratu behar da emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta horien berdintasuna sustatzeko helburua.

Euskadiko Autonomia Estatutua

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1. artikuluan, berdintasunerako eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeriarik eza aldarrikatzen da. Horrez gainera, Estatutuaren 9.2.d artikuluan zera adierazten da: *“herri-aginteeek pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztopoak ezabatzeko betebeharra dute, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauza dadin”*.

Euskal Autonomia Erkidegoko Berdintasunerako Planak

Eusko Legebiltzarrak, otsailaren 5eko 2/1988 Legea onartuta (Emakumearen Euskal Erakundea sortarazteari buruzkoa da lege hori), lege horren zioen adierazpenean jasotzen den bezala, lehen mailako gaitzat jo zen emakumeekin bereizkeriaz jokatzeko era guztiak benetan ezabatzea eta emakumeek gure Erkidegoko alor guztietan esku-hartzeari bultzatzea egiteko



beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartzea; halaber, bere gain hartu zuen arlo horretan ekintza bateratuari indar egiteko lana ere.

2/1988 Legea garatze aldera, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko berdintasunerako zazpi plan onetsi ditu. Plan horietan euskal herri-administrazioen esku-hartzearen oinarritzko gida-lerroak jasotzen dira, emakumeen eta gizonen berdintasuna bizitzako eremu guztietan bultzatzeari dagokionez.

Apustua, une honetan, zera da, berdintasunerako eskubide hori legetestuetan formalki aitortua ez ezik, praktikan benetan aplikatua izatea bermatzea.

Ordiziako Berdintasunerako III. Plana diseinatzeko garaian erreferentzia nagusia EAEn indarrean den Emakume eta Gizonen Berdintasunerako **VII. Plana izan da**, eta Plan horren ildoekin eta egiturekin bat egiten du Ordiziako III. Planak. Izan ere, Plan horren xedea baita, euskal erakunde publiko desberdinek emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko lan-ildoak ezartzea, eta gizarte berdinzalerantzko prozesuan aurrera egitea, emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzen laguntzeko, bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialaren eremu guztietan.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak bi dimentsio bereizten ditu: erakundeen barrura begirakoa bata, eta herritarrei begirakoa, bestea:

- **Gobernu Ona:** Erakundeetan bertan eta euskal administrazio publikoaren barne-funtzionamenduan berdintasunaren printzipioa sustatzeko eta integratzeko.
- **Herritarren esku-hartzerako ardatzak, hiru lehentasunezko esparru** zehazten direlarik: emakumeen ahalduntzea; ekonomiak eta gizarte-antolakuntzak eraldatzea; eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea

Berdintasunerako eskubidea praktikan aplikatzea da, hain zuzen ere, Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen xedea. Lege honek mekanismo eta neurri zehatz batzuk planteatzen ditu, euskal herri-administrazioek eragin handiagoko politikak eta jarduketak abiarazi ditzaten lortzeko, halako moldeetan non emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren fenomenoak -egiturazkoa eta unibertsala- gizartetik desagerraraz dadin.



2006ko Emakumeen eta Gizonen Tokiko Bizimodurako Europako Gutuna

Europako udalerrri eta eskualdeetako gobernuei zuzendua dago Europako Gutuna.

“Europako tokiko eta erregioko gobernuei zuzendurik dago eta gutuna sinatzera gonbidatzen zaie, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioarekiko jendaurreko jarrera agerrarazi eta Gutunean zehazturiko konpromisoak beraien herrialdeetan aplika ditzaten”. Izan ere, tokiko zein eskualdeetako administrazioak, herritarrengandik hurbilen dauden gobernu-organoak izanik *“bere horretan dirauten ezberdintasunei aurre egin eta egiazko berdintasunezko gizartea sustatzeko esku-hartze maila egokienak dira”.* EUDEL (EAEko Udalerrien Elkarte) ekimenaren bazkideetako bat da eta, ondorioz, berdintasunarekiko duten konpromisoa berresteko, Euskal Herriko hainbat eta hainbat udalek sinatu dute Gutuna.

Emakumeen eta Gizonen egiazko Berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoa

Legeak Estatuaren eskumen guztien arauketa modu zehatzean garatzen du. Horrela, udalek berdintasun errealararen lorpenean duten betebeharra zehazten da 21.1 artikuluan: *“tokian tokiko erakundeek berdintasun-eskubidea barneratuko dute euren eskumenetan eta gainerako herri-administrazioei lagunduko diete zentzu honetan”.*

Ordiziako Berdintasunerako III. Planak, lehenago aipatutako EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren ildoekin bat egiten du. Izan ere, Plan horren xedea da, euskal erakunde publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren kontuetan sustatu behar dituzten lan-ildoak ezartzea, benetako berdintasunean aurreratzea lor dezagun bai ekonomia, kultura, gizarte-bizitzaren bai bizitza politikoaren esparru guztietan.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana (2020-2023)

Lurralde-mailara etorrira, kontuan hartzekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrean onartutako **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana (2020-2023)**. Honek ere Gobernu Onaren ildoak du ardatz nagusi, eta horiek gauzatzeko ildo desberdinak proposatzen ditu, Berdintasunerako VII. Planaren logikari jarraituz:



2. Araudi-markoa

- Emakumeak ahalduntzea
- Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea berdintasuna bermatzeko
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak

Honenbestez, Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana diseinatzeko garaian, aipaturiko marko hau hartu da kontuan; arauak zein planek, kasuan kasu, behartu edota gomendatzen dituzten jarraibideei erreparatuta.



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

3.1. Planaren xedea, printzipioak eta bermeak

Ordiziako Berdintasunerako III. Planak EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planarekin bat egiten du. Hori horrela izanik, azken horretan jasotzen diren xede, printzipio eta balioak bere egiten ditu Ordiziako Udalak, eta Berdintasunerako III. Planaren garapenerako berme gisa hartuko ditu.

- **PLANAREN XEDEA:** Balioak aldatzea da, bizitzaren arlo guztietan emakumeen mendekotasuna mantentzen eta justifikatzen duten balioak aldatzeko. Ildo honetan, Udaletik martxan jartzen diren politiken ustezko neutraltasuna berrikustea beharrezkoa izango da, esku-hartze publiko guztia balio-aldaketarekin lerratzeko.
- **PRINTZIPIO GIDARIAK:** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean jasotako berdintasunaren printzipioa eta printzipio orokorrak aintzat hartuta, Ordiziako Berdintasunerako III. Planak, bere egiten ditu EAEko VII. Planak jasotzen dituen printzipio hauek:
 - **Genero-ikuspegia:** Emakumeen aurkako diskriminazioaren aurka kokatzen den agenda eraiki nahi da, eta agenda horrek sistematikoki izango du kontuan gizonek eta emakumeek egoera, behar eta interes ezberdinak dituztela.
 - **Paradigma feminista:** Pentsamendu feministako lerro eta dimentsioak barne hartzen dira, emakumeen eta gizonen bereizkeriak eta diskriminazioak nola eta zergatik sortzen diren azaltzea eta ulertzea ahalbidetzen duen teoria eta praktika politikoa baita feminismoa.
 - **Emakumeen ahalduntzea:** Emakumeak ahalduntzea ezinbestekoa da berdintasuna lortzeko. Lan-agenda osoa gidatzen duen printzipioa da, izan ere, emakumeen ahalduntzea helburua, tresna eta prozesua da, hainbat maila dituena: pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa.
 - **Interseksionalitatea:** generoa eta beste bereizkeria batzuen arteko interseksionalitatea onartzen du bere estrategiaren diseinuan. Nahiz eta patriarkatuan emakume guztiek genero-identitate bera izan, emakumeen aniztasuna generoa eta beste bereizkeria eta desberdinkeria-iturri batzuekin (hizkuntza, klasea, etnia, jatorria, sexu-orientazioa eta genero-identitatea, adina,



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

10.

aniztasun funtzionala eta abar) elkarrekikotasunean erlazionatzen da.

- **BERMEAK:** Ordiziako Berdintasunerako III. Planak jasotzen dituen helburu operatiboak betetze aldera eta aurreikusitako eragina lortze aldera, berme hauek ezartzen ditugu:
 - Emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko **benetako konpromiso politikoari** eustea.
 - Beharrezko aurrekontu-**baliabideak**, giza baliabideak eta baliabide teknikoak bideratzen jarraitzea.
 - **Politika gardena** izatea eta herritarrei kontuak ematea, diru-publikoaren bidez berdintasunari nola laguntzen zaion jakinarazteko, horretarako beharrezkoak diren tresnak sortuz.
 - Emakume- eta herri-mugimenduek, baita eragile ekonomiko eta sozialek ere, **politiken garapenean parte hartzea eta hitz egitea**.
 - **Udal-sailek erantzunkidetasuna** izatea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortze aldera.



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana

3.2. Planaren esku-hartze eremuak eta helburuak

Berdintasunerako III. Planak **esku-hartze eremu hauek** ditu:

ESKU-HARTZE EREMUA	AZALPENA
1. BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA	Genero-ikuspegia administrazioan txertatzeak, berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzen laguntzen du. Izan ere, gure eguneroko jardunean genero-ikuspegia integratzen badugu, esku-hartze publikoan emakume eta gizonen egoera, baldintza eta premia ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea lortuko dugu, batzuen eta besteen abiapuntuak kontuan hartuz. Eta horrek Ordiziako Udalak berdintasunaren alde hartutako konpromisoa indartzeaz gain, bere esku-hartze publikoa bidezkoagoa egiten du.
2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	Emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarrituko den gizartea eraikitzeko emakumeen ahalduntzean eragitea ezinbestekoa bilakatzen da, euren parte-hartzea bultzatuz, eta emakumeak, historia, politika, ekonomia eta kulturako objektu izateari utzi eta bere bizitzako subjektu bihurtuz.
3. EKONOMIA- ETA GIZARTE-ANTOLAKETA ERALDATZEA	Gizarte-eredu androzentriko eta matxista batetik berdintasunezko gizarte batera igartzeko, beharrezkoa da sexu-hierarkia eta genero-desberdinkeriak gainditzea, bestelako balio sozial batzuk indartzea eta botere-eredu berriak eraikitzea. Lana sexuaren arabera banatzeak ekoizpen-arloan eta arlo publikoan maskulinoak eta gizonenak diren harreman, rol eta balioak egotea ekarri du; eta aldiz, zaintzaren, ugalketaren eta pribatua denaren eremuan balio, rol eta harreman femeninoak eta emakumeenak direnak gailendu dira.



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana

4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA

Emakumeen eta gizonen arteko botere-desorekaren adierazpen larrienetakoa da **indarkeria matxista**. Indarkeria matxista ez da soilik emakumeengan ematen den indarkeria. Esparru fisikoan zein sinbolikoan ematen da eta sexu/genero/sexualitate eskema tradizionalak hausten dituzten emakume nahiz gizonek jasaten dute.

Segidan, **esku-hartze horietako bakoitzari ezarri dizkiogun helburuak** zerrendatu ditugu:

ESKU-HARTZE EREMUA	HELBURUAK
1. BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA	1.1. Berdintasunerako Plana garatzea, segimendua egitea eta ebaluatzea.
	1.2. Berdintasunerako Planaren barne- eta kanpo-komunikazioa areagotzea.
	1.3. Udalak genero-berdintasunarekin hartutako konpromisoa herrian ikusaraztea.
	1.4. Genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko baldintzak hobetzea.
	1.5. Udal-barne mailan berdintasuneko lana partekatzea, koordinatzea eta lankidetzak eskaintzea; eta kanpo-mailan Udalaz gaindiko egiturekin harremanak sustatzea.
	1.6. Ordiziako Udala osatzen duten langileak berdintasunean trebatzea, berdintasuneko trebakuntza espezifikoa eskainiz.
	1.7. Udal-estatistika eta -azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.
	1.8. Udal-komunikazioan genero-ikuspegia txertatzea.
	1.9. Udal-kontratazioetan eta dirulaguntzetan berdintasunerako klausulak txertatzea.



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana

	<p>1.10.- Udal-araudietan berdintasunaren printzipioa txertatzea.</p> <p>1.11. Udal-hautaketako eta barne-promozioko prozesuetan genero-ikuspegia txertatzea.</p> <p>1.12. Udal-sailek beren jardueran eta politika sektorialetan genero-ikuspegia txertatzea.</p> <p>1.13. Lan-ingurune berdinzalea, eroso eta segurua bermatzea.</p> <p>1.14. Herriko eragile feministekin eta emakumetaldeekin elkarlanean politika feministak diseinatzea, segimendua egitea eta ebaluatzea.</p>
ESKU-HARTZE EREMUA	HELBURUAK
2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	<p>2.1. Emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboari begira, emakumeen genero-kontzientzia, autonomia eta autoestimua sustatzea.</p> <p>2.2. Emakumeen ahalduntze sozial eta politikoari begira, emakumeen partaidetza soziopolitikoa indartzea, eremu eta guneguztietan.</p>
ESKU-HARTZE EREMUA	HELBURUAK
2. EKONOMIA- ETA GIZARTE-ANTOLAKETA ERALDATZEA	<p>3.1. Berdintasuna balio sozial gisa aitortzea, eta herritarrak nahiz herriko eragileak berdintasunaren beharraz sentsibilizatzea.</p> <p>3.2. Herriko hezkuntza-eragileekin hezkidetzan sakontzea.</p> <p>3.3. Bizitzaren jasangarritasunerako zaintza-lanek duten balioa sozializatzea, bizitza erdigunean jartzearen filosofiari jarraiki.</p>



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana

ESKU-HARTZE EREMUA	HELBURUAK
4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA	4.1. Indarkeria matxistaren aurrean Udalak jarrera eragilea edukitzea.
	4.2. Indarkeria matxistaren inguruko prebentzioa lantzea, eta indarkeria matxistarik gabeko herria lortzeko herritarrak sentsibilizatzea.
	4.3. Indarkeria sexistaren biktima diren emakumeei babes eta arreta integrala bermatzea, eta haien ahalduntze-prozesuetan laguntzea.



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

15.

3.3. Planean jasotako neurriak, epeak eta arduradunak

Jarraian, Berdintasunerako III. Planean zehaztutako neurriak jaso ditugu, horien epeak eta arduradunekin batera¹.

BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA (K)
1.1. Berdintasunerako Plana garatzea, segimendua egitea eta ebaluatzea.	1.1.1. Berdintasunerako Plana Udalbatzan onartu eta abiatu .	2021	Berdintasuna Sail guztiak
	1.1.2. Berdintasunerako Plana garatu, urtez urtekako lan-plangintza diseinatuz (Planaren segimendurako tresnaren bidez).	2021-2024	Berdintasuna
	1.1.3. Berdintasunerako Planari etengabeko segimendua egin segimendurako tresnaren bidez, urte bukaeran memoria-txostenean jasoz neurrien nahiz helburuen betetze-maila.	2021-2024	Berdintasuna
	1.1.4. Beste udal-sailletako teknikariei aholkularitza eta laguntza eman , Planaren segimendurako tresna betetzeko.	2021-2024	Berdintasuna
	1.1.5. Planaren indarraldiaren bukaeran Planaren ebaluazio sakonagoa egin.		Berdintasuna

¹ OHARRA: Neurri horietako bakoitzaren betetze-maila neurtzeko adierazleak Planari segimendua egiteko sortu dugun exceleko tresnan zehaztu ditugu.



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA (K)
1.2. Berdintasunerako Planaren barne- eta kanpo-komunikazioa areagotzea.	1.2.1. Udal-teknikari eta ordezkari politikoei Planaren garapenaren berri eman . Adibidez, urtero memoria-txostenak aurkeztuz, urtero berariazko butelin bat argitaratuz, etab.	2021-2024	Berdintasuna Komunikazioa
	1.2.2. Herritarrei begirako komunikazio-ekintzak egin urtero, Planaren garapenaren berri emateko, eta era horretan, Berdintasun Sailaren jarduna ezagutarazteko eta ekintzen berri emateko: udal-aldizkaria, webgunea, sare sozialak, bilera irekiak...	2021-2024	Berdintasuna Komunikazioa
1.3. Udalak genero-berdintasunarekin hartutako konpromisoa herrian ikusaraztea.	1.3.1. Udalak Berdintasunerako Plana onartzean, herritarrei horren berri eman hartutako konpromisoan berresteko.	2021	Berdintasuna Udal Gobernu Taldea
	1.3.2. Urteko egun esanguratsuen inguruan (martxoak 8, ekainak 28, azaroak 25...) udal-adierazpenak egin eta herritarrei ezagutarazi: webgunea, sare sozialak...	2021-2024	Udal Gobernu Taldea Berdintasuna
	1.3.3. Udalak egiten dituen agerraldi publikoetan ordezkaritza parekidea bermatzeko eta ohiko genero- rol eta -estereotipoak iraultzeko neurriak hartu: prentsurrekoak, ekitaldiak, sari-banaketak...	2021-2024	Udal Gobernu Taldea
	1.3.4. COVID-19ak eragindako salbuespen-neurrietan berdintasunaren ikuspegia kontuan hartu.	2021	Udal Gobernu Taldea Berdintasuna



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA (K)
1.4. Genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko baldintzak hobetzea.	1.4.1. Berdintasunerako esku-hartzea bideratzeko beharrezkoak diren bitarteko pertsonalak eta materialak indartu. Adibidez, egungo berdintasun-technikaria lanaldi osoz Berdintasunean jardutera pasaz, edo teknikari bat gehiago kontratatuz.	2021	Udal Gobernu Taldea
	1.4.2. Berdintasunerako esku-hartzea bideratzeko beharrezkoa den aurrekontua aurreikusi urtero.	2021-2024	Udal Gobernu Taldea Berdintasuna Kontu-hartzaitza
1.5. Udal-barne mailan berdintasuneko lana partekatzea, koordinatzea eta lankidetzak eskaintzea; eta kanpo-mailan Udalaz gaindiko egiturekin harremanak sustatzea.	1.5.1. Berdintasuneko politikak garatzeko berriazko lantaldeak sortu , eta aldi berean behin politika horiei segimendua egin Herritartasun Batzordean .	2021-2024	Berdintasuna Herritartasuna Batzordea
	1.5.2. Zeharlerroko sailekin lantaldea sortu eta maiztasun jakin batekin bildu, martxan dauden prozedura ezberdinak errebisatzeko, eta esku artean dituzten lanei segimendua egiteko.	2021-2024	Zeharlerroko sailak
	1.5.3. Goierriko beste udalerrietako berdintasun-technikariek etengabeko harremanak mantendu, eta elkarlanean ekimenak garatu.	2021-2024	Berdintasuna
	1.5.4. Berdintasunaren eremuan dauden Udalaz gaindiko egituretan eta programetan parte hartu: <i>Gipuzkoako Teknikarien Sarea, Berdintasuna, Beldur Barik, Gipuzkoako Jabetze Eskolen Sarea</i> , etab.	2021-2024	Berdintasuna



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA (K)
1.6. Ordiziako Udala osatzen duten langileak berdintasunean trebatzea, berdintasuneko trebakuntza espezifikoa eskainiz.	1.6.1. Genero-berdintasunaren eta genero-zeharlerrotasunaren inguruan sentsibilizatzeko trebakuntza-saioak egin , udal-teknikari, langile eta ordezkari politiko guztientzat.	2021	Berdintasuna Antolaketa Batzordea
	1.6.2. Zeharlerrotasunaren estrategia garatu ahala, Udal-langileek berdintasunaren arloan zer-nolako trebakuntza-beharrak dituzten identifikatu, eta kasu bakoitzerako proposamenak egin.	2021-2022	Berdintasuna Pertsonala
	1.6.3. Genero-ikuspegia sail bakoitzaren jarduera-eremuan txertatzearekin lotutako berariazko trebakuntzak egin.	2022-2024	Berdintasuna Pertsonala
1.7. Udal-estatistika eta -azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.	1.7.1. Pertsonekin lotutako datuak jasotzeko erabiltzen diren udal-inprimaki guztiak egokitu, horietan sexuaren aldagaia txertatzeko.	2021-2022	Informatika Berdintasuna
	1.7.2. Udal-sail guztiei udal- inprimaki berriak aurkeztu.	2022	Informatika Idazkaritza
	1.7.3. Sailen erregistroak egokitu , jasotako informazioa sexuaren arabera erregistratzeko.	2022-2023	Informatika Sail guztiak
	1.7.4. Jasotako informazioa genero-ikuspegitik aztertzeko udal-sailei aholkularitza eskaini.	2023-2024	Berdintasuna
1.8. Udal-komunikazioan genero-ikuspegia	1.8.1. Udal- komunikazio barneratzailea eta ez-sexista egiteko landuta dagoen instrukzioa Udalbatzan aurkeztu eta onartu, eta teknikari, langile eta	2021	Idazkaritza Berdintasuna



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA (K)
txertatzea.	ordezkari politikariei ezagutarazi.		
	1.8.2. Behaketa egin landutako komunikazio-irizpideen betetze-mailari segimendua egiteko.	2022	Berdintasuna
	1.8.3. Azterketaren emaitzen berri eman udal-langile, teknikari eta ordezkari politikoei.	2022	Berdintasuna
	1.8.4. Beharrezkoa ikusten bada, Udalaren komunikazio-gida barneratzeko trebakuntza-saioa antolatu.	2022-2023	Berdintasuna
1.9. Udal-kontratazioetan eta dirulaguntzetan berdintasunerako klausulak txertatzea.	1.9.1. Gaur egun pleguak nola egiten diren aztertu eta hobetzeko alderdiak identifikatu, zeharlerroko sailekin elkarlanean eta, beharrezkoa bada, berariazko lantaldea sortuz.	2021-2022	Berdintasuna Idazkaritza Zeharlerroko Sailak
	1.9.2. Identifikatutako hobekuntzak aintzat hartuta, udal-kontratazioak egiteko prozedura berri bat landu udal-sailekin elkarlanean.	2021-2022	Idazkaritza Zeharlerroko Sailak Sail Guztiak
	1.9.3. Prozedura berria martxan jartzeko proba pilotua egin.	2023-2024	Idazkaritza Zeharlerroko Sailak Sail Guztiak
	1.9.4. Dirulaguntza -deialdietan berdintasuneko irizpideak txertatu , ordenantzan landutakoa aintzat hartuta.	2021-2024	Berdintasuna Idazkaritza



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA (K)
1.10.- Udal-araudietan berdintasunaren printzipioa txertatzea.	1.10.1. Udal-araudiak lantzeko prozedura orokorra egin, eta bertan genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko betebeharra ezarri.	2023	Idazkaritza Berdintasuna
	1.10.2. Proba pilotu bat garatu adostutako prozedura testatzeko.	2024	Idazkaritza Berdintasuna
	1.10.3. Proba pilotua baloratu eta hurrengo urratsak zehaztu.	2024	Idazkaritza Berdintasuna
1.11. Udal-hautaketako eta barne-promozioko prozesuetan genero-ikuspegia txertatzea.	1.11.1. Udal-hautaketa eta promozio-prozesuetan genero-ikuspegia txertatzeko irizpideak landu , kasuan kasu. Adibidez, gaitegian genero-berdintasunari buruzko edukiak sartuz; segregazio horizontala edo bertikala dagoen eremuetan ordezkariak orekatzeko irizpideak txertatuz; etab.	2023-2024	Idazkaritza Berdintasuna
1.12. Udal-sailek beren jardueran eta politika sektorialetan genero-ikuspegia txertatzea.	1.12.1. Udal-sailekin etengabeko harremana eduki, beren esku-hartzeetan genero-ikuspegia nola txertatu lantzeko , arreta berezia jarrita herrian inpaktu esanguratsua duen ekimenetan; adibidez, <i>Herri hezitzaileen programan</i> .	2021-2024	Berdintasuna Sail guztiak
	1.12.2. Beharrezkoa ikusten bada, udal-sail bakoitzaren beharretara egokitutako jarraibideak landu , eguneroko lanean genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko.	2021-2024	Berdintasuna Sail guztiak



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA (K)
	1.12.3. Udal-sailetatik genero-ikuspegia aintzat hartuta egin diren azterketetan ateratako ondorioak aintzat hartuta, hobetzeko neurriak identifikatu eta esku-hartzeak garatu udal-sailekin elkarlanean: jaien inguruko azterketa, kirolaren eremuko diagnostikoa, <i>Hiri Debekatuaren Mapa...</i>	2021-2024	Berdintasuna Inplikaturako sailak
1.13. Lan-ingurune berdinzalea, eroso eta segurua bermatzea.	1.13.1. Udal-langileen nahiz azpikontratatura dauden zerbitzuetako langileen egoera genero-ikuspegitik aztertu , eta identifikaturako alderdiak hobetzeko neurri zuzentzaileak martxan jarri, langileen ordezkariekin elkarlanean.	2023-2024	Idazkaritza Pertsonala
	1.13.2. Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta aurre egiteko protokoloa egokitu edota berria sortu , eta udal-langile, -teknikari eta ordezkari politikoei ezagutarazi.	2022-2023	Idazkaritza Berdintasuna
1.14. Herriko eragile feministekin eta emakume-taldeekin elkarlanean politika feministak diseinatzea, segimendua egitea eta ebaluatzea.	1.14.1. Herriko Koordinadora Feministarekin nahiz emakumeen elkarteekin etengabeko harremana mantendu, eurek antolatzen dituzten jarduerak zabalduz edota eduki ditzaketen premiei erantzunez.	2021-2024	Berdintasuna



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA (K)
2.1. Emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboari begira, emakumeen genero-kontzientzia, autonomia eta autoestimua sustatzea.	2.1.1. Ahalduntze Eskola egituratzeko hasitako hausnarketa-prozesua indartu eta bururaino eraman.	2021-2024	Berdintasuna
	2.1.2. Ahalduntze Eskolaren urteko programazioa adostu Koordinadora Feministako emakumeekin eta Eskolako partaideekin elkarlanean, ikuspegi feminista interseksionala aintzat hartzen dela bermatuta. Adibidez, teoria feministan sakontzeko ikastaroak antolatu; edota emakumeek euren bizipenak partekatzeko, elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko solasaldiak antolatu, etab.	2021-2024	Berdintasuna Koordinadora Feminista
	2.1.3. Ahalduntze Eskolaren dinamizazio-programa (ikastaroak) antolatu , eta horien kudeaketa- eta jarraipen-lanak egin.	2021-2024	Berdintasuna
	2.1.4. Ahalduntze Eskolako ikastaroak herriko emakumeen artean zabaltzeko bitartekoak sortu eta hedatu.	2021-2024	Komunikazioa Berdintasuna
	2.1.5. <i>Gipuzkoako Jabetze Eskolen Sarean</i> parte hartu, sistematizazio- eta ebaluazio-euskarriak partekatuz eta elkarlanean ekimenak antolatuz.	2021-2024	Berdintasuna
	2.1.6. Alor ezberdinetan dabilzan emakumeek elkar ezagutzeko eta euren arteko harremanak eta sareak sustatzeko ekimenak antolatu . Adibidez, kulturegintzan, kirolean... dabilzan herriko emakumeen arteko topaketak antolatu.	2021-2024	Berdintasuna



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA (K)
	2.1.7. Jatorri aniztetako emakumeen Ahalduntze Gunea espazioa antolatu urtero , Migrazioa eta Aniztasuna nahiz Gizarte Ongizatearekin elkarlanean.	2021-2024	Berdintasuna Migrazioa eta Aniztasuna Gizarte Ongizatea
	2.1.8. Doako euskara-ikastaroak antolatu, bereziki beste jatorri batzuetako herritarrak euskalduntzen laguntzeko.	2021-2024	Euskara
	2.1.9. Udalean aholkularitza-zerbitzua martxan jartzeko aukera aztertu (batez ere bereizkeria anizkoitza jasaten dutenei) enplegu-eskubideen inguruko informazioa emateko, eta beharrezkoa ikusten bada, martxan jarri.	2021-2022	Migrazioa eta Aniztasuna Gizarte Ongizatea
	2.1.10. COVID-19ak areagotutako zaugarritasun-egoeran dauden emakumeei (adineko emakumeak, alargunak, etorkinak, zaintzari lotutako emakumeak, ama bakarrak, aniztasun funtzionala dutenak...) beren oinarrizko gizarte-eskubideak bermatzeko eta, kasu batzuetan, euren egoera ekonomikoa hobetzeko programak eta zerbitzu espezifikoak egokitu edo sortu, Gizarte Ongizatearekin elkarlanean. Adibidez, haurrak zaintzeko zerbitzua eskaintzeko aukera aztertu eta, egoki ikusten bada martxan jarri, emakume migratzaileen enpleguratzeari sustatzeko.	2021-2024	Gizarte Ongizatea Berdintasuna
2.2. Emakumeen ahalduntze sozial eta politikoari begira, emakumeen partaidetza soziopolitiko indartzea, eremu eta gune guztietan.	2.2.1. Emakumeen Etxea sortzeko aukera aztertu eta, hala erabakiz gero, egitasmoa garatu.	2023-2024	Berdintasuna Udal Gobernu Taldea Koordinadora Feminista
	2.2.2. Ordiziako elkarteetako zuzendaritzen inguruan egindako azterketan ateratako ondorioak aintzat hartuta, hobekuntza-neurriak diseinatu eta garatu emakumeen partaidetza sustatzeko .	2022-2024	Berdintasuna - Kultura Kirola - Gizarte Ongizatea Euskara



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

24.

BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA (K)
	2.2.3. Udalak antolatzen dituen parte-hartze prozesuak diseinatzerakoan , emakume kolektibo jakinen partaidetza kuantitatiboa eta kualitatiboa bermatzeko neurriak zehaztu.	2021-2024	Sail guztiak
	2.2.4. Emakumeek hainbat esparrutan (kultura, kirola, landa-eremuan...) egindako ekarpena eta izan duten eta duten papera ikusarazteko eta aitortzeko ekimenak martxan jarri. Adibidez, erakusketak, hitzaldiak, kirol-jarduerak... antolatuz; udal-liburutegian txoko feminista sortuz, eta abar.	2021-2024	Sail guztiak
	2.2.5. Espazio publikoan emakumeen presentzia sinbolikoa indartzeko irizpideak landu eta ekimen zehatzak bideratu.	2021-2024	Hirigintza - Kultura - Berdintasuna



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

EKONOMIA- ETA GIZARTE-ANTOLAKETA ERALDATZEA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA (K)
3.1. Berdintasuna balio sozial gisa aitortzea, eta herritarrak nahiz herriko eragileak berdintasunaren beharraz sentsibilizatzea.	3.1.1. Data esanguratsuen bueltan (martxoak 8, maiatzak 17, ekainak 28, azaroak 25...) eta urte osoan zehar berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa lantzeko ekimenak antolatu.	2021-2024	Berdintasuna Sail guztiak
	3.1.2. Herriko gizonetzkoekin lanketa espezifikoak egin, feminismoaren eta bestelako maskulinitate-ereduak eraikitzearen garrantziaz sentsibilizatzeko.	2021-2024	Berdintasuna <i>Kimetz</i> Elkartea
	3.1.3. Herriko elkarteetako ordezkariak (kultur elkarteak, kirol-elkarte eta -klubak, eskola-kiroleko begirale eta entrenatzaileak...) berdintasunean formatzeko trebakuntza espezifikoak antolatu.	2021-2024	Berdintasuna - Kultura - Kirola Gizarte Ongizatea
3.2. Herriko hezkuntza-eragileekin hezkidetzan sakontzea.	3.2.1. Ikastetxeetako hezkidetzatza- programak indartzeko aukera aztertu eta, posible bada, aurreikusitako baliabideak areagotu (ordu-kopurua, Lanbide Heziketan ere lantzea...).	2021-2022	Berdintasuna - Hezkuntza Ikastetxeak
	3.2.2. Hezkidetzatza-programek hezkuntza-komunitateko eragileengan duten inpaktua aztertu , eta balizko hobekuntza-neurriak martxan jarri.	2021-2022	Berdintasuna - Ikastetxeak
	3.2.3. Hezkidetzatza Mahaiaren dinamikarekin jarraitu, eta Hezkuntza Batzordearekin koordinatu.	2021-2024	Berdintasuna - Hezkuntza - Ikastetxeak
	3.2.4. Hezkuntza ez-formaleko hezitzaileak (Gaztelekua, udalekuak...) berdintasunean eta hezkidetzan trebatzeko ikastaroak antolatu.	2021-2024	Gazteria Berdintasuna
	3.2.5. Gaztelekua hezkidetzaren eremuan egiten ari den lanketarekin jarraitu eta, besteak beste, indarkeria matxista prebenitzeko eta egoerez jabetzeko estrategiak eta pautak landu (gazteen arteko harremanak, tratu	2021-2024	Gazteria Berdintasuna



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

EKONOMIA- ETA GIZARTE-ANTOLAKETA ERALDATZEA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA (K)
	onak...)		
	3.2.6. Bereziki gazteei eragiten dieten gai jakinen inguruko ekimenak antolatu (sare sozialen erabilera...) eta, beharrezkoa ikusten bada, lanketa espezifikoak egin neska eta mutilekin (genero-rol eta -estereotipoak, autodefentsa feminista...).	2021-2024	Gazteria Berdintasuna
	3.2.7. Herriko gazte eta nerabeentzako sexu-heziketarako aholkularitza zerbitzua martxan jartzeko beharra aztertu eta, egoki ikusten bada, martxan jarri.	2023-2024	Gazteria Berdintasuna
	3.2.8. LGTBI taldeek gazteen artean nozitzen duten diskriminazioari aurre egiteko ekimenak martxan jarri.	2021-2024	Gazteria Berdintasuna
	3.2.9. Eskola-kiroleko eskaintza genero-ikuspegitik aztertu, eta identifikatutako balizko hobekuntza-neurriak martxan jarri.	2021-2022	Kirola Berdintasuna
3.3. Bizitzaren jasangarritasunerako zaintza-lanek duten balioa sozializatzea, bizitza erdigunean jartzearen filosofiari jarraiki.	3.3.1. <i>Ordizian burutzen diren zaintzen inguruko diagnostikoan</i> ateratako ondorioak aintzat hartuta, identifikatutako lan-ildoak garatu.	2021-2024	Berdintasuna Gizarte Ongizatea Migrazioa eta Aniztasuna
	3.3.2. Zaintza-lanen banaketa erantzunkidea sustatzeko sentsibilizazio-kanpainak egin.	2021-2024	Berdintasuna - Gizarte Ongizatea Migrazioa eta Aniztasuna
	3.3.3. Udal-sailek antolatzen dituzten ekintzetan kontziliozko erantzunkidea sustatzeko neurriak hartu.	2021-2024	Sail guztiak



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA (K)
4.1. Indarkeria matxistaren aurrean Udalak jarrera eragilea edukitzea.	4.1.1. Emakumeenganako indarkeriari erantzuteko protokoloa berraztertu, Udalbatzan onartu eta indarrean jarri.	2021	Udal Gobernu Taldea-Berdintasuna
	4.1.2. Bortizkeria jasandako emakumeen arretarako Goierriko protokoloaren testuinguruan lanean jarraitu, eta koordinazio- eta jarraipen-batzordea sustatzeko neurriak proposatu eta garatu.	2021-2024	Berdintasuna - Gizarte Ongizatea
	4.1.3. Udaleko emakumeentzako autodefentsa feminista ikastaroa eskaini, eta Udaleko gizonentzako maskulinitate berriak ikastaroa antolatu.	2021	Berdintasuna
4.2. Indarkeria matxistaren inguruko prebentzioa lantzea, eta indarkeria matxistarik gabeko herria lortzeko herritarrak sentsibilizatzea.	4.2.1. Herritarrei, oro har, eta emakumeei bereziki, indarkeria sexistari aurre egiteko Udalak eta gainerako erakundeek dituzten bitarteko eta baliabideen berri eman . Adibidez, martxan dauden baliabide eta zerbitzuen gida zabalduz eta, beharrezkoa bada, baliabide eta euskarri gehiago sortuz.	2021-2024	Berdintasuna Gizarte Ongizatea Komunikazioa
	4.2.2. Indarkeria sexistaren inguruan herriko emakume anitzak sentsibilizatzeko trebakuntza-saioak antolatu, ikuspegi interseksionala aintzat hartuta: adineko emakumeak, emakume gazteak, beste jatorri batzuetako emakumeak, aniztasun funtzionala dutenak...	2021-2024	Berdintasuna Gizarte Ongizatea
	4.2.3. Berariaz indarkeria matxistaren inguruan hausnartzeko eta jarrera eragileak sustatzeko gizonentzako sentsibilizazio-ekimenak antolatu.		Berdintasuna



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA (K)
	4.2.4. Jaien testuinguruan , indarkeria matxista prebenitzeko eta aurre egiteko eragileen arteko elkarlana eta koordinazioa sustatu; eta ekimenak modu partekatuan garatu. Adibidez, herriko mugimendu feministarekin elkarlanean, brigada feministak antolatu emakumeei gauzez etxera joaten laguntzeko.	2021-2024	Berdintasuna - Kultura - Jaiak Komertzioa Koordinadora Feminista
	4.2.5. Jaien testuinguruan, indarkeria matxistaren inguruko kanpaina espezifikoak antolatu, eta horretarako beharrezkoak diren euskarriak sortu edo daudenak berritu. Adibidez, informazio-gunea jarri, herri-mailako telefono-zenbaki bakarra ezarri laguntzarako eta, besteak beste, informazio-panelaren bidez zabaldu; etab.	2021-2024	Berdintasuna - Kultura - Jaiak Koordinadora Feminista
4.3. Indarkeria sexistaren biktima diren emakumeei babes eta arreta integrala bermatzea, eta haien ahalduntze-prozesuetan laguntzea.	4.3.1. Herrian egondako indarkeria matxisten inguruko datuak sistematizatu , bildu eta horiek udal- nahiz udalerri-mailan ezagutarazi .	2021-2024	Gizarte Ongizatea - Berdintasuna Komunikazioa
	4.3.2. Indarkeria sexista jasaten duten emakumeei ematen zaien arreta ebaluatu Gizarte Ongizatearekin elkarlanean, eta esku-hartzea integrala izateko eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko hartu beharreko neurriak identifikatu eta martxan jarri.	2021-2024	Gizarte Ongizatea Berdintasuna
	4.3.3. Indarkeria sexista jasan duten emakumeei egindako kaltea aitortzeko eta erreparatzeko ekimen posibleen inguruan hausnartu eta, egoki ikusten bada, garatu.	2023-2024	Gizarte Ongizatea Berdintasuna



3. Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

29.

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA (K)
	4.3.4. Indarkeria matxistaren inguruan etengabeko formazioa antolatu emakumeak artatzen dituzten profesionalekin , eta, bereziki, Udaltzaingoarekin.	2021-2024	Berdintasuna Gizarte Ongizatea

Plana osorik artxibo honetan jaso dugu:



3. Ordiziako
Berdintasunerako III. P



4.1. Planaren kudeaketarako egiturak

Ordiziako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Planaren garapen egokia bermatzeko, **beharrezkoak diren koordinazio-egiturak jarriko** ditu martxan Udalak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3. artikuluan jasotako printzipio orokorreari jarraituz: *Euskal herri-aginteez, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, elkarrekin lankidetzan aritzeko eta beren jarduketak koordinatzeko betebeharra dute, esku-hartze eraginkorragoak eta baliabideen erabilera arrazionalarekin bat datozenak egin ahal izan daitezten.*

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana **zeharlerrotasunaren ikuspegitik** landuko da, hots, Udalaren sail guztiek euren gain hartuko dute, bai prozeduretan eta baita euren sailetatik garatzen dituzten politiketan genero-ikuspegia txertatzeko konpromisoa, eta konpromiso horrek erantzukizunak bere gain hartzeko eta berdintasunerako politiken arloko trebakuntza-saioetan, bileretan... parte hartzeko prozesuan izango du isla, besteak beste.

Planaren bidez erdietsi nahi diren helburuak lortzeko, beharrezkoak izango dira hainbat lan-esparru edo egitura. Eta horietako bakoitzak funtzio eta zeregin zehatzak izango ditu.

Ordiziako Berdintasunerako III. Planak guztira **22 helburu eta 84** neurri jasotzen ditu. Helburu horiek lortzeko proposatzen diren neurriek izaera jarraitua edo puntuala daukate. Hau da, neurri batzuek urtez urtekako garapena izango dute, euren betetze-maila pixkanaka handitzen joango delarik. Beste batzuk, aldiz, puntualak izango dira eta beraz, urte konkretu batean gauzatuko dira.

Jarraian, proposatutako egiturak, horien osaera eta funtzioak azaltzen ditugu:

- Berdintasun Saila
- Herritartasuna Batzorde Informatiboa
- Hezkidetzeta Mahaia
- Koordinadora Feminista



BERDINTASUN SAILA

Berdintasunerako III. Planaren garapen eta jarraipen koherente eta koordinatua bermatzea.

Parte-hartzaileak:

- Berdintasun-teknikaria ²
- Berdintasun-zinegotzia

Funtzioak:

- Planaren testuinguruan garatuko diren neurriak bultzatzea eta koordinatzea, Planak koherentzia izan dezan.
- Planak eta herritarrek proposatutako neurriak garatzea.
- Udal-sailei beharrezko laguntza eta aholkularitza ematea neurriak garatzeko.
- Planaren garapenean inplikaturako egitura eta eragile guztiak koordinatzea.
- Helburu eta denboren betetze-mailaren jarraipena egitea.
- Neurri-zuzentzaileak proposatzea eta neurri hauen ezarpena baloratzea.
- Planaren komunikazioa egitea, bai udal-mailan eta bai udalerrri-mailan.
- Lortutako helburuak mantentzeko beharrezko ardurak zehaztea eta tresnak kudeatzea.
- Planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

Garatutako prozesuan ez da beharrezkoa ikusi udal-sailen arteko koordinazio teknikorako egitura, Berdintasuneko Batzorde Teknikoa, berriz martxan jartzea. Udalean dagoeneko sortuta dauden egiturak baliatzea adostu da Planari etengabeko segimendua egiteko, eta sailen arteko koordinazioa bermatzeko. Honenbestez, **Herritartasuna Batzordearen** bidez egingo da.

² Berdintasuna bultzatzeko egituren lanean ari den Teknikaria Berdintasunari buruzko prestakuntza (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Masterra –EHU 2016) eta eskarmentua ditu Ordiziako Udalean I. eta II. Planak inplementatzen eskarmentua ditu.



4. Planaren kudeaketa-eredua

HERRITARTASUNA BATZORDE INFORMATIBOA

Berdintasunerako III. Planaren garapen tekniko koherente eta koordinatua bermatzea, eta baita Planaren jarraipena egitea ere.

Parte-hartzaileak:

- Berdintasun-teknikaria
- Alkatea
- Batzordea osatzen duten gainontzeko sailtako arduradun teknikoak eta politikoak

Funtzioak:

- Planaren testuinguruan garatzen ari diren neurriak bultzatzea eta koordinatzea, Planak koherentzia izan dezan.
- Sailtako teknikariei genero-ikuspegiarekin lan egin dezaten laguntza eskaintzea, izan ditzaketen zalantzei edo kezkei erantzuna emanez.
- Sailtako teknikariei trebakuntza eta aholkularitza eskaintzea, besteak beste, Planean jasotako neurriak garatzeko.
- Urte bakoitza bukatzean urteko txostena egitea; egindako jardueri, erabilitako bitartekoei eta baliabideen jarraipenari buruzkoa, Berdintasunerako III. Planean aurreikusitako helburuak bete ote diren egiaztatzeko balorazioarekin.

Hezkuntzaren eremuan, **Hezkidetza Mahaia** martxan jarri zuen Udalak orain zenbait urte, hezkuntza formaleko eragileen koordinazioa bermatzeko. Hezkidetza berdintasunerako gai estrategikoa izanda eta Mahaiak orain arte lortutako emaitza onak kontuan hartuta, hurrengo urteetan ere, egitura horrekin lan egitea proposatzen da. Horrez gain, eta Planean jaso bezala, Hezkuntza Batzordearekin koordinatzea komenigarria ikusten da.

HEZKIDETZA MAHAIA

Hezkuntza formaleko eremuan, berdintasunaren aldeko politikak garatzea.

Parte-hartzaileak:

- Hezkuntza formaleko eragileak (ikastetxeetako ordezkariak)
- Berdintasun-teknikaria
- Beste udal-sail batzuk: Gazteria, Kirola...

Funtzioak:

- Hezkuntza formaleko eragileen arteko koordinazio bermatzea, ikastetxeetan berdintasunaren aldeko politikak bultzatzeko.
- Berdintasunaren aldeko ekintza bateratuak antolatzea eta planifikatzea.
- Hezkuntza formaleko eragileak trebatzea eta sentsibilizatzea.



4. Planaren kudeaketa-eredua

- Berdintasunaren gaiaren inguruan Ordiziako ikastetxeei aholkua ematea.
- Ikastetxeetan hezkidetzari buruzko esku-hartze proiektua koordinatzea.

Horrez gain, herriko mugimendu feministako eta emakume-elkarteetako kideekin elkarlana mantentzeko eta indartzeko beharra ikusten da, berdintasunerako politikak garatzeko. Duela urte batzuk Berdintasun Batzordea egon bazen ere, egun ez dago, eta ez da lehentasunezko zat jotzen beste gune bat martxan jartzea, Koordinadora Feminista egonda.

COORDINADORA FEMINISTA

Berdintasunerako III. Planaren garapenari jarraipena eta ekarpenak egitea.

Parte-hartzaileak:

- Berdintasunaren alde lanean ari diren elkarteetako kideak edo norbanakoak
- Mugimendu feministako kideak
- Berdintasun-teknikaria
- Berdintasun-zinegotzia

Funtzioak:

- Berdintasunerako politiketan modu aktiboan parte hartzea eta horien inguruko hausnarketa egitea.
- Berdintasunaren gaiaren inguruan Udalari aholkua ematea.
- Ekintza puntualak antolatzea, Udalarekin elkarlanean.
- Berdintasunaren alde lan egiten duten eta lan egiteko prest dauden elkarte eta eragileen arteko elkarlana bultzatzea: emakume taldeak nahiz talde feministak.
- Iritzia eta analisirako gaitasuna sortzea, eta hausnarketarako espazioa izatea.

Egitura hauez gain, neurri konkrituak garatzeko berariazko lantaldeak sortzea ere proposatzen da. Talde horien helburu nagusia aurreikusitako neurria garatzea izango denez, behin berau garatuta, desegin egingo lirateke.



4.2. Erakundeen arteko koordinazio-egiturak

Erakundeen arteko koordinazio-egiturei dagokienez, honako hauek azpimarratu behar dira:

- 2016tik Ordiziako Udalak **BERDINSAREAn** – Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalaren Sarean parte hartzen du.
- 2013tik Gipuzkoako Foru Aldundiak – Berdintasun organoak sustatutako Gipuzkoako Teknikarien lan-sarea.
- 2014tik Goierri indarkeria pairatzen duten emakumeei arreta egokia eta koordinatua emateko protokoloaren jarraipena eta koordinaziorako batzordea (Goieki – Goierriko Garapen Agentziaren ardurapean).
- 2020tik Goierriko Berdintasun teknikarien koordinazio eta elkarlanerako sare informala (Ordizia, Beasain, Zaldibi, Legorreta, Segura eta Lazkao).

4.3. Plana garatzeko aurrekontua

Berdintasunerako III. Planaren garapena ziurtatuko duen aurrekontua zehaztuko du urtero Ordiziako Udalak.

Berdintasun Sailaren esku-hartzea bermatzeko eta **jarduerak antolatzeko 2021erako aurreikusitako aurrekontua 70.000 eurokoa** izango da. Aurrekontu horrek ez ditu aintzat hartzen, beraz, pertsonal-gastuak, ezta gainontzeko udal-sailen berdintasunerako aurrekontu-partidak ere.



Komunikazioa beharrezkoa da herritar eta eragileei asmoen berri emateko, eta baita Planaren garapenean euren parte-hartze aktiboa eta inplikazioa lortzeko. Gainera, egindako prozesuak agerian utzi du datozen urteetan **bereziki zaindu eta indartu beharreko alderdia** izan behar dela. Beraz, Planaren garapenean zehar funtsezkoa izango da komunikazio-ekintzak egitea bai udal-mailan eta bai udalerrri-mailan Berdintasun Saila bereziki, eta Udala, oro har, berdintasunaren eremuan egiten ari den esku-hartzearen berri emateko.

Hori dela eta, urtero, **Berdintasunerako Planari lotutako komunikazio-plana** lantzea aurreikusten da. Bertan jasoko dira, Planaren garapenean zehar sozializatu beharreko mezuak, bitartekoak eta baliabideak.

Planaren garapenean **3 komunikazio-une** garrantzitsu egongo dira:

Planaren hasierako komunikazioa:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana behin onartuta, horren berri emango da bai udal barruan, baita herrian ere:

- **Udal-teknikari guztiei eta, bereziki, Planaren ekintzen garapenean ardura zehatzak dituzten teknikariei:**
 - Planaren nondik norakoak azaltzeko bilera egin da.
 - Udal-langile guztiei Planaren txostena bidaliko zaie.
- **Ordezkarri politiko guztiei:**
 - Planaren nondik norakoak azaltzeko bilera egin da.
 - Ordezkarri politiko guztiei Planaren txostena bidaliko zaie.
- **Herritarrei:**
 - Planaren nondik norakoak azaltzeko bilera egin da.
 - Planaren lanketan parte hartu duten herritarrei Plana bere osotasunean bidaliko zaie.



5. Planaren komunikazioa

- Prentsaurrekoa egingo da egindako prozesuaren eta diseinatutako Planaren nondik norakoak azaltzeko.
- Plana Udaleko webgunean txertatuko da.

- **Talde feminista eta emakumeen elkarteei:**

- Plana bere osotasunean bidaliko zaie.

Planaren garapeneko urteetan egin beharreko komunikazioa:

- **Udal-mailan:**

- Herritartasun Batzordearen bidez jasoko dute Planaren berri udal-teknikari eta ordezkari politikoek.
- Urte hasieran, aurreko urteko memoria eta balorazioa egiteko eta datozen hilabeteak planifikatzeko, eta urte erdian, Planaren neurriak aintzat hartuta, aurrekontuak lantzeko eta onartzeko, eta urteko jarraipena egiteko.
- Beharrezkoa ikusten bada, berriazko komunikazio-euskarriak sortuko dira Planaren garapenaren berri emateko. Adibidez, buletina argitaratu eta zabalduz.

- **Herri-mailan:**

- Udaleko webgunean Planaren inguruko informazio eguneratua izango da, eta urtero urtean zehar garaturiko neurriei buruzko memoria-txostena jarriko da herritarren eskuragarri.
- Eragile desberdinekin sortzen diren batzordeetan (Hezkidetza Mahaia, Koordinadora Feminista...) Berdintasunerako Planaren berri emango da, gutxienez, urtean bitan.
- Komunikazio-ekintzak egingo dira Planaren garapenaren berri emateko, kanal ezberdinak erabiliz: bilera irekiak, udal-aldizkaria, webgunea, sare sozialak...



5. Planaren komunikazioa

Planaren amaierako komunikazioa:

Berdintasunerako III. Plana osotasunean garatu ondoren, ebaluazioan lorturiko emaitzen gaineko informazioa zabalduko da Udal barruan zein herrian.



6. Planaren segimendua eta ebaluazioa

Urtero, urte naturalaren bukaerarekin batera, Planaren betetze-mailari eta inpaktuari dagozkion atalak beteko dira **eta Herritartasuna Batzordea nahiz Koordinadora Feministan** partekatu eta aztertuko dira emaitzak. Hau guztia kontuan hartuta zehaztuko da hurrengo urteko Planaren kudeaketa-plana edo lan-plangintza.

Planari **etengabeko segimendua** egingo zaio, eta urtean behin sakonago aztertuko da Planaren arrakasta-maila. Planaren indarraldia bukatzen denean, ordea, **ebaluazio sakonago bat** egingo da Planaren nahiz neurrien betetze-maila eta Planaren eragina baloratzeko



